

## LEHEN GALDETEGIKO ERANTZUNAK

(urriak 25 – urriak 31)

1. Zein beste izenez da ezaguna Durangoko Udaletxe plaza? (2 puntu)

Txiki eta Otaegi (Nahiz eta ahoz horrela erabili duten askok gaur arte, sasoi batean plaka ez-ofizial bat egon zen Correoseko eraikineko horman, argazkia ikus daitekeenez).



Batzuek Kartzelape erantzun duzue, baina izen horrekin udaletxeko arkupea zen ezaguna, ez plaza.

2. Durangoko zein kale da 1963an ateratako argazki honetan agertzen dena? (2 puntu)



Askatasun etorbidea da gaur egun, eta argazkiko sasoiari Avenida del Generalísimo. Biak eman ditugu ontzat.

3. Argazkikoa moduko zenbat birziklatze gune daude Durangon? Esan kopurua eta non dauden kokatuta. (2 puntu)



5 daude:

San Fauston, Bernardo Gabiola kalean  
Landako etorbidean, Landako Gunearen parean  
Askatasun Etorbidean, Herria tabernaren ondoan  
Ezkurdin, Zumalakarregi kalean  
Tabiran, Ibaizabal Ikastola alboko rotondan

4. Zein tabernakoa da pintxo hau? (2 puntu)



Pol-Pol tabernakoa da

5. Zenbat da Gerediaga - Eibar autopistako bidesaria auto batentzat? (2 puntu)

1,90 €

6. Munduko zein herrialdetan eman da azkenengoz estatu kolpe bat? (2 puntu)

Sudanen (Honen aurrekoa Ginean eman bazen ere, galdetegia zabaldu genuen egunean bertan eman zen estatu kolpea Sudango errepublikan)

7. Durangaldeko zein kirolari geratu da hirugarren Portugalgo Enduro txapelketan? (2 puntu)

Peru Irazola

8. Durangaldeko zein ilustratzailerena da ilustrazio hau? (2 puntu)



Iraia Okina da egilea

9. Zein euskal filmetan agertzen da elkarrizketa hau? (2 puntu)

- Eta infernutik zatoz? Benetan?
- Hik zer uste dun, txetxe?
- Ez zenuen nire ama ikusiko, ezta? Bere izena Maite da.
- Kristoren arima pila dago infernuan. Nolatan dakin ama infernuan dagoela?

Errementari filmean

10. Zein da esaldi zuzena Euskaltzaindiaren arabera? (2 puntu)

AEK-k eta HABEK hurrengo hiru urterako akordioa sinatu dute.

11. Emotikonoak. Zein abesti daude irudikatuta? (kanta bakoitzak puntu bat)



- 1) Lisboa (Anne Lukin eta Gorka Urbizu)
- 2) Bedeinkatua (Chill Mafia)
- 3) 25. artikulua (Idoia Asurmendi feat. Eñaut Elorrieta)
- 4) Euri tanta (Pirritx, Porrotx eta Marimotots)

12. Durangoko rokodromoan igo daitezkeen bide guztietatik zein gradukoa da zailtasun handiena duena? (2 puntu)

7a+/b

13. Zer falta da argazki honetan? (2 puntu)



Durangoko Arte eta Historia Museoko teilatuan dagoen elementu hori.

14. Nortzuk dira argazkian agertzen diren hiru pertsonak? (pertsona bakoitza puntu 1)



Kai Nakai

Alaine Agirre

Ben Yart

15. Zein talde edo elkarteren logoak dira hauek? (logo bakoitza puntu 1)

